

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 50 milioi euro bideratuko du aurten Foru Komunitateko pobreziari aurre egiteko

Halaber, udaletako eta gizarte-erakundeetako ordezkariekin gizarteratzearen aldeko estrategia bat landuko du

Lunes, 11 de marzo de 2013

Urte honetan zehar Nafarroako Gobernuak 50,2 milioi euro bideratuko du Foru Komunitateko pobreziari aurre egiteko eta pertsona guztien gizarteratzearen alde egiteko. % 89 prestazio ekonomikoak finantzatzeko izango dira, Gizarteratzeko Errenta, esaterako, eta, gainerakoa, jarduera ekonomikoa eta zerbitzuak sustatzeko.

Hala eman du aditzera gaur goizean Gizarte Politiken kontseilari Iñigo Martínezek gizarteratzeko lan-taldeak Iruñean egin duen bileran. Talde horretan parte hartzen dute: Departamentuko ordezkariak, Nafarroako Enplegu Zerbitzukoak, gizarte-zerbitzuetakoak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federaziokoak, eragile ekonomiko eta sozialetakoak eta gizarte-ekimeneko erakundeetakoak.

Zehazki, 2013an Nafarroako Gobernuak 44,5 milioi euro bideratuko du gizarteratzeko arriskuan dauden pertsonen ematen dizkien hainbat prestazio ekonomiko finantzatzeko. 2,9 milioi euro ere jarriko du pertsona horien kontratazioaren alde egiten duten programak sustatzeko eta 1,6 milioi euro hainbat zerbitzuren prestazioa ordaintzeko, gizarteratzeko edo laneratzeko edo etxebizitzaren ekipo integralak, esate baterako. Gainerako inbertsioa oinarrituko da, diru-laguntza orokorren edo zehatzen deialdietan, gizarteratzeko etxebizitzetan eta aterpetxeetan.

Hedabideen aurrean egindako adierazpenetan, Allik aipatu du Nafarroako Gobernuaren asmoa "pobrezia desagertzeko laguntza" ematea dela, "egoera dramatiko batean, demokrazia-garaiko krisi ekonomiko handiena bizi denean". Gizarteari ere deia egin dio boluntario-modura edo ekarpen ekonomikoekin "pertsona guztien gizarteratzeko lanetan" laguntza eman dezan. Alde horretatik, Nafarroako Gobernuak berriki sustatutako ['Comprometido Socialmente' zigilua](#) azpimarratu du, edo baita dohaintza-mota horien alde egiten duten pizgarri fiskalak ere.

Gizarteratzeko estrategia



Alli kontseilaria gizarteratzeko lan-taldeko bileraren buru; haren ezkerrean, Gizarte Politika eta Kontsumoko zuzendari nagusi Mariano Oto.

Bileran, Alli kontseilariak bere Departamentuak aurtengorako finkatutako helburuen berri ere eman du pertsonen garapenari eta gizarteratzeari dagokionez. Haien artean nabarmendu behar da, arlo horretan 2016 arte Nafarroako Gobernuaren jarduketa bideratuko duen estrategia bat onartzea.

Horretarako, batzorde bat eratzea erabaki da, eta batzorde horrek Nafarroako gizarte-bazterketaren egungo egoera nahiz etorkizuneko aztertuko ditu. Gizarte Politiken Departamentuko bi kidek osatuko dute eta oinarriko gizarte-zerbitzuetako beste bik, bai eta ondorengo erakundeetako ordezkariak ere: Nafarroako Enpresarien Konfederazioa, sindikatuak, Cáritas Diocesana, Gurutze Gorria eta Pobreziaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Sarea.

Batzorde horrek ere pertsona horien oinarriko beharretan ardaztutako gizarteratzeko estrategia bat planteatu beharko du (diru-sarrerak, enplegua eta bizitokia), sinplea, errealista, neurgarria eta ekonomikoki zenba daitekeena. Hilabete honetan batzorde hori osa dadin aurreikusita dago eta urte amaieran Nafarroako Gobernuak estrategia onar dezan.

2012ko jardueraren balantzea eta parte-hartzaileak

Bileran zehar, 2012an Pertsonak Garatzeko eta Gizarteratzeko Arreta Zerbitzuak egindako jardueraren datu garrantzitsuenak ere aurkeztu dira. Haien artean nabarmentzen dira, alde batetik, gizarteratzearekin lotutako laguntza-deialdi guztiei eustea, eta bestetik, Gizarteratzeko Errentaren kudeaketa hobetzea, horrek dakarren itzarote-zerrendaren murrizketarekin.

Alli buru zela gaur goizean egindako bileran honako erakunde hauetako hogeit bat ordezkariak parte hartu dute: Gizarte Politiken Departamentua, Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, gizarte-zerbitzuak, Nafarroako Enpresarien Konfederazioa (CEN), UGT eta CCOO sindikatuak, Elikagaien Bankua, Cáritas Diocesana, Gurutze Gorria, Gaztelan eta Pobreziaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Sarea.